

GARIKOITZ GOIKOETXEA

Hizkuntzaren norabideak marrazten

2024-10-30



PLAZA

Euskaldunentzako Jabetze Eskolaren aurkezpen ekitaldiaren ardura izan zuen Garikoitz Goikoetxeak. Bere hitzaldiaren hasieran euskararen biziberritze-prozesuak ikuspegi sozialetik gaur egun duen egoeraren deskribapen xehea egin ondoren, berehala jarri gintuen aurrera begira.

ZAZPI JAUZI

1. Joxean Artzeren “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik” esaldia buruan iltzatuta dugu euskaldunok. Baina noraino erantzuten dio gaur egun dugun erronka nagusiari? Euskaraz egiteko aukera duen gero eta hiztun gehiago dago, **baina aukera horiek errealak al dira?**
2. Goiko esaldiaren atzean, “erabilera-faltaren” diskurtsoaren hegemonia dago. Esku artean dugun auziari modu partzialean heltzea dakar horrek. **Presazkoa da diskurtso horren barruan gaitasunaren kontzeptua sartzea.** Euskara erabiltzeko gaitasuna ez da homogeneoa euskal hiztunen artean, ezta hurrik eman ere. Horrek eragina du erabileran.
3. **Gaur egun, euskararen erabilera eroso baina, euskararen erabilera ezerosoa da nagusi.** Horrek zerikusia du norbanakoaren hautuarekin eta gaitasunarekin. Norbanako horiei euskara eroso erabili ahal izateko guneak eskaini behar dizkiegu.
4. Ondorioz, gaur egungo arazo nagusia ez da erabili nahi eza. Euskaldunok, aukera (erosoa bada, hobe) dugunean, euskaraz egiten dugu. **Gaur egungo arazo nagusia euskara erabili ezina da.**
5. Euskararen erabileraz ari garenean, asko **hitz egiten dugu hiztunen jarreraz. Baina hitz egiten al dugu interesaz?** Zer erantzuten dute hiztunek “zergatik eta zertarako hitz egin euskaraz” galdetzen diegunean?
6. Hezkuntza izan da eta da euskalduntze-prozesuaren gakoetako bat, eta, horren barruan, hizkuntza-ereduen sistema. Gaur egun **D ereduak funtzionatzen du, bai, baina D ereduan parte hartzen duten hiztunak aldatu egin dira.** Hori oso kontuan hartu behar da.
7. Bidegurutzearen irudia sarri erabili da euskararen biziberritze-prozesuak gaur egun bizi duen ataka deskribatzeko. Kontua da ez bakarrik gure gertuko ingurunea, mundu osoa ari dela aldatzen, oso azkar, gainera. **Ez gaude bakarrik hizkuntzaren bidegurutzean: bidegurutze askotan gaude.**